

Megahiria

GAYATRI CHAKRAVORTY SPIVAK

1997ko urtarrilean Hong Kongen ibili nintzen megahiriei buruz hizketan. Halako gonbidapen bitxiak onartzen ditut landa guneko irakasleentzat eskuragarria izango den hezkuntza filosofia bat taxutu ahal izateko beharrezkoak diren joan-etorri guztiak subentzionatzeko. Diziplinartekotasuna atsegin dut. Autodidakta naiz. Halako antzezpen antzekoei esker gauzak ikasten ditut. Har ezazue, beraz, esku artean duzuen testu hau bidaia-liburu baten antzera, eta, gainera, Bangaloreko silizionazioaren une batean atzemanda balego bezala, Indiako bost megahirietako bat, alegia.

Bangaloren Robert Reichek urte hartan egindako elkarrizketa batean deskribatu zuen gizarte klasearekin egin nuen topo: “kapitalismo elektronikoak... arrakasta handiena duten pertsonen ematen die gizartetik banantzeko aukera. Gaur egun posible da goi mailako zuzendari, profesional eta teknikariek mundu osoko beren kideekin komunikatzea...”¹ Kultura sezesionista horrek alde ugari ditu eta denak ez dira nahitaz berdinak. 1965. urtean, Lyndon Johnsonen sarrera kuotak malgutu ondoren Estatu Batuetara iritsi ziren etorkin talde berrien barruan kokatzen diren “gutxiengoen eredu”-aren seme-alabak talde horretakoak dira orain. Lankidetzazko gobernuz kanpoko erakundeen “Nazioarteko Gizarte Zibil” berriaren kideak sare sezesionistaren aldekoak dira eta buru-belarri dabilta hari giza tankera eman nahian. Feminismo unibertsalista oso bizia da hemen. Bangaloren beste pertsona mota batekin egin nuen topo, Indiako software enpresa handienetako bateko Zuzendariorde Eragile eta Enpresa Garapenerako Zuzendariarekin. Gizonak berrogei bat urte zituen eta une hartan jet-lagaren ondorioen mende zegoen, Estatu Batuetara arestian egindako bidaia baten ondoren. Ohiko kontakizun laburra egin zidan Bangalore, Silizioaren Harana ez bazen behintzat, Indiako “Silizioaren Hiria” zergatik bihurtu zen azaltzeko.

Berrogeiko hamarkadaren hondarrean eta berrogeita hamarrekoaren hasieran, Independentziaren ondoren Indiaren mapa berregituratzen ari zelarik, institutu zientifiko ugari ezarri ziren bertan, besteak beste, Zientziaren Indiako Institutua eta Garapenerako Asiako Institutua. Haietako bat, Ikasketa Aurreratuen Indiako Institutua, Bangaloren ezarri zen hainbat arrazoirengatik, bai Bangaloreren koloniaurreko eta koloniako historiarekin zerikusia zuten arrazoiak (hiri txikia egitura zibil garatuarekin), bai bertako klimarekin eta demografiarekin. Horrek oinarri tekniko jakin bat sortu zuen eta ondorioz, enpresa elektroniko nazional handiak erakarri zituen Indiako lehen Bost urteko Planaren itzalean. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hondarrean eta laurogeikoaren hasieran, industriak

¹ Robert Reich eta David Bennahumen arteko elkarrizketa in “Into the Matrix” (<http://www.reach.com/matrix/meme2-02.html>).

softwarerantz jo zuen. (Oraindik ez da ikertu zer lotura dagoen horren artean eta Johnsonen kuota sistema malgutzearen artean). 1971 eta 1981 artean, Bangaloreren hazkunde indizea %76koa izan zen, Asiako bizkorrena. Software enpresek — Digital, Hewlett-Packard, IBM eta Verifonek, besteak beste— India hartu zuten berriz ere softwarean inbertsioak egiteko toki erakargarritzat. “Eskulan merkea” zela-eta —ikasketa kultural globalak dituzten pertsona guztiek etengabe xehatu eta azaldu beharreko esamoldea— beren softwarea Hirugarren Munduan landu nahi zuten atzerriko enpresak Indian erosten hasi ziren beraiek egin ordez. Horren eta 1973. urteko Europako atzeraldiaren artean dagoen erlazioa, baita nazioarteko burtsa handien elektronizatzea ere, “diru birtuala”-ren historiaurrea da orain. 1987. urtean, Texas Instruments Indian ezarri zen. Indian satelite bidezko komunikazioak erabili zituen lehen enpresa izan zen. Konektatuta egoteak (nire informatzailearen hitzak) zuen kostua —300.000 dolar urtean “zirkuitu” bat jardunean izateko— oso garestia zen tokiko kapitalarentzat. Kostu hura gutxitzea erakargarria zen konkurrentziaren ikuspegitik. Hemen korapilatzen da, hain zuzen, “gizartearen sezesioaren” jokoa. Asko lagundu zuen “industriaren barreneko” mugimenduek - xehatzeko moduko beste adierazpen bat- zirkuitu erdi baten kostua 30.000 dolarretara gutxitzea, izugarritzko gutxitzea, haren hitzetan.

(Alorreko eragile horrek, nire informatzaileak hain zuzen, “eskulan merkea” esamoldea mahaigaineratu zuen. Bangaloreko “kultura” diziplina gisa aztertzen denean ziberespazioan —orain “Kultur Ikasketak” deritzon horretan—, esamoldeetan aldaketa txiki bat egiteak asko adierazten du garai aldakorrez. Bangaloreko Kultur Ikasketetako joera ezkertiarreko ekintzaile batek —atzerrian aztertzekeo datu baseak biltzen ari zela—, New Yorken adierazi zuen 2000. urteko martxoan, “ez zegoela langileriarik” Indiako ziberindustrian, “dena software”-a besterik ez zelako. Hori, jakina, zuzena da nazio-estatuan pentsatuz gero. “Langileriarik eza” “eskulan merkearekin” bateragarria izan daiteke, “eskulan merkea” beren kide amerikarren soldataren hamarren batengatik lan egiten duen ingeniari taldea bada, baina aldi berean erdiko klasea Indiako estandarren arabera. Arazoa da ustez ziberkontzientziak nazio diskurtsoa globalizatzen duela postnazionalismorantz. Asiako hego-ekialdeak langileria *izateak*, gehienbat emakumeak eta hardwarearekin zerikusia dutenak, ez du ezertxo ere esan nahi Asiako hegoaldean dagoen Bangalore hiriko Kultur Ikasketentzat.)

Laburbilduko dut hark esandakoa: 1991n, Karnataka estatuko Elektronika Sailak —sektore publikoak, beste hitz batzuetan— nire informatzaileak Lurreko Gunea deiturikoa ezarri zuen. Eta laurogeiko hamarkadaren hondarrean, garapenerako finantza institutuak —Munduko Bankuak koordinatutako enpresa “pribatuak”, baina gobernuaren partizipazio batzuekin— software enpresak zabaltzeko beharrezkoa zen kapital-arriskua ematen hasi ziren, eta kredituak finantzatu zituzten hamabost urtetara hasierako kapital gisa.

Hala mintzatu zen Bangaloreko Sizilioaren hiriko kultura sezesionistaren ordezkaria. Hirian milaka software teknikari zuzendari dago, enpresaz enpresa ibiltzen direnak, eta “batez besteko indiarrarekin” inolako antzik ez dutenak, ezinezko irudia, bestalde.

(Solosaldu batean komunitate hartako emakume batek egin zidan galdera estugarria isilaraziz gero: “Zergatik nahiago dute seme-alabek nortasun amerikarra indiarra baino?”, baztertu egiten dut megahiriaren kulturaren barruan lanean dagoen genero banaketari buruzko galdera guztiz garrantzitsu bat, alegia, senararentzat, negozioak eta globalizazioa, eta emaztearentzat, berriz, seme-alabak haztea eta amerikanizazioa. Oraindik ez da lotura gauzatu.)

Nire informatzailea, itxura on eta lasaia zuen gizona, estresak eta bizimodu errazak otzantzen hasia, bere burua deskribatu zuen, hain zuzen, kultura sezesionistaren kide gisa: telekomunikazio oso onak kanpoaldearekin, etengabeko bidaiak atzerrira, soldata dolarretan kobratu arren Indian bizi dena, libre globalki mugikorra izateko bere gaitasunetan, eta dagozkion xede eta helburuekin. Halako pertsonak Bangalore izeneko espazio erreal batean soilik birtualki bizi badira, “erreal” eta “birtual” hitzek lehenagoko semiotika batekoak dira. Haustura bakoitza errepikatze bat da aldi berean...

Zalantzarik ez dago softwarearen garapena birtuala dela; toki desberdinetan dauden pertsonak “elkarrekin lan egin” dezakete inolako gorabehera fisikorik gabe. Baina hori, berez, ez da birtualtasuna zentzu guztiz berrian. Inolako gorabehera fisikorik gabe lan egitea, azken batean, etxeko lanaren, postfordismoaren eta langileriaren hausturaren salmenta puntua da, egungo fabrikaren eraispeneren bitartez. Beste hitz batzuetan esanda, komunikazioa telekomunikazioa izan da beti. Gaur egun bere instrumentaltasuna ezin da finantza kapitalaren zirkuituetatik bereizi. Arestian idatzi dut horri buruz beste leku batean.²

Kapital I lanean Marxek subjektua eta kapitalaren egitura inplizitua deskribatu zuen; Foucaultek horri “subjektuaren posizio esleitua” deitu zion, Goetheren *Faust*etik pasatu ondoren: “munstro bizidun bat ‘lanari’ ekiten diona maitasunak hartuta balego bezala.”³ Marxek horri ematen zion irtenbidea posizioaren errekonstelazioa zen birbanatzearen alde, ez makinak eta metodo berriak erabiltzeari uko egiten dion inoren egoidealismoa, postmarxista ospetsuek errazegi iradoki izan duten bezala, horrenbeste, ezen oin oharra egitea erreferentzia moduan irigarria izango bailitzateke. Dei diezaiogun “joera teoriko nagusia” eta utz dezagun bere horretan.

Marxek kapitalismo industrialaren gainean idatzi zuen. Leninek oinarria aldatu zuen kapital komertzialaren garrantzia aipatzearen. Arestian, Saskia

² Gayatri Chakravorty Spivak, “Planet-think/Continent-think,” in *The New Comparative Literature* (New York: Columbia Univ. Press, laster argitaratzekoa)

³ Karl Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, itz. Ben Fowkes (New York: Vintage, 1977) 1: 302

Sassenek iradoki du aginpidea eta zilegitasuna finantza kapitalaren merkatura pasatu direla, Saskiak “herritar ekonomikoa” deiturikoa.⁴ Marxek kapital industrialaren subjektu-egitura bikotea deskribatu bazuen, guk, hemen kultura sezesionista elektronikoa subjektuaz dihardugu, herritar ekonomikoa “pertsone” gisa, sistema marxistaren lekualdatze modura. Hark finantza kapitalaren merkatuaren subjektua eta egitura darama. Garaile da postfordismo komun edo arruntaren aurrean, bere produktua birtuala delako. Horixe da Marxek *Kapital 2* lanean garraioak industria gisa duen toki bereziari buruz sortzen duen eztabaidaren bertsio lekualdatua. Produktua ez da garraiatutako ondasunak, lekualdatze bera baizik:

“Garraioaren industriak saltzen duena toki aldaketa bera da. Produzitutako ondorio erabilgarria garraioaren ezin bananduzko prozesuari lotuta dago... Eta bidaiatze prozesua, garraioaren mugimendu espaziala, hain zuzen ere, garraioaren industriak burutzen duen produkzio prozesua da. Ondorio erabilgarria produkzio prozesuan bakarrik kontsumi daiteke; ez da existitzen prozesu honen bestelakoa den erabilera objektu gisa...”⁵

Nire informatzaileak ez zuen hori irakurri, jakina. Ezker erradikalaren eta estatu modernoaren antzera, berak ere nazioaz hitz egiten zuen, edo hobeto esanda, kokapenaz. Orain arte proiektutan oinarritu gara —deiar dar egin zuen—, gure betekizunak beste batzuek erabaki dituzte, eta haien beharren arabera produzitu dugu. Orain *gure* proiektuen arabera produzitu behar dugu, jaun eta jabe izan. Globalak izan gara kontsumitzaileei zegokienez; orain, berriz, globalak izan behar dugu kapitalari dagokionez.

Nire informatzailea, megahiri birtualeko hegoaldeko herritarra, oker dago zentzu horretan. Ekonomikoki berregituratuta dagoen estatu postkolonialean, estatuaren ekonomia hauskorren eta nazioarteko kapitalaren arteko oztopoak erortzen ari dira bake beroaren barruan.⁶ Telekomunikazioa postmodernitate bihurtzen den neurrian, modernitate deskolonizatu baten ametsak suntsitzen ari dira, Merkataritzaren Mundu Erakundeak krisien kudeaketan egiten dituen jarduerak direla eta. Nehru-Mountbattenen 1947-49ko Indiako Konstituzioan idatzitako ekonomia babestuak *de iure* bideratu zuen txip erdieroaleen fabrikazioa. “Hobe da burujabetza esportazioen mende bizitzea baino”, zen nire gaztaroko

⁴ Saskia Sassen, “On Economic Citizenship,” in *Losing Control? Sovereignty in An Age of Globalization* (New York: Columbia Univ. Press, 1996), 31-58

⁵ Marx, *Capital: A Critique of Political Economy*, itz. David Fernbach (New York: Vintage, 1978), 2:135.

⁶ Ikus Spivak, “Cultural Talks in the Hot Peace: Revisiting the ‘Global Village,’” in Pheng Cheah and Bruce Robbins, arg., *Cosmopolitics: Thinking and Feeling Beyond the Nation* (Minneapolis: Univ. of Minnesota Press, 1998), 329-348.

leloa. Berregitura ekonomikoaren mende, mundu mailan lehiarkotasunik ez duen ikaragarri garestia den egiteko hori desagertzen ari da. Nazio-estatuak planetaren egiazko espazioan duen tokiaz dihardugu, birtualtasunaren makineriarekin erlazionatzen den neurrian. Bangalore ez da “errealki” Silizioaren Hiria soilik. Izan ere, munduko hirugarren gizon aberatsenaren hiria da eta oraindik ere kapital globalaren mutur hartzailean dago. Eta sailkapena iraupen gutxikoa da, salbuespenezkoa.

Horrela, megahiri birtualaren “kultura” edo “subjektua” ez da ohiko lasterketa-klase-genero zentzuan bakarrik dibertsifikatzen, baizik eta kapitala ere zatikatu egiten da agentzian, aktiboaren eta pasiboaren artean, edo, nahiago izanez gero, “kontrola” eta bere antonimoa, nahiz eta jadanik gordinegia den mugimendua elektronikoa denean. Baina, nazio-estatu desagertuko ez den epistema gordin horren izena da. Hori da, hain zuzen, nire arazoibidearen zati nagusia. Kultura-subjektu-agente hirutasuna oraindik ere beharrezkoa bezain ezinezkoa da. Subjektuak ez badu kapitalaren ardura duen agentzia kontrolatzea amets egiten, kapitala ez da mugitzen.

Subjektu-agente kateatze jakin hori ez da “India”-ren adierazgarria soilik, jakina. Urtebete geroago, Bigarren mailako Ikasketen kongresu batera joan nintzen Lucknowera eta “kapitalismo elektronikoa” hitzak erabili nituen. Kongresuan zegoen kontserbadore ezkertiar talde baten aurreiritzi sexistak zirela-eta, esamolde hori AEBetako nire elitismotik zetorrelakoan, ez zidaten azaltzeko astirik eman, baina gutxienez hitz hauek esan nituen: “Kongresu honetan Bangaloreko herritar batzuk ekarri izan bazenituzte, jakingo zenuketen zer den kapitalismo elektronikoa. Bangalore ez dago Indian; ezkerreko arazoibide nazionaletik askoz ere haratago doan gune irekia da. Jakin ere ez dakizue zer esan nahi duen zaharkitu bihurtzen zaituen horrek.”⁷

1999ko irailean, ezkerreko intelektual arruntak jadanik bazekien Bangalore zer zen, nahiz eta oraindik ere “kapitalismo elektronikoa” esamoldea arrotz zitzaion. Bonbain egoitza duen *Economic and Political Weekly* argitalpenak Bangaloreko gobernu zibilaren kritika egin zuen, gehiegi ere kezkatu gabe hiriaz edo, megahiria den aldetik finantzatze federalarekin duen erlazio bereziaz.⁸ Kritika ona egin zuen, eta ekonomia elektronikoa haustura autodeklaratu errepikatze bat ere bazela esan zuen, esplotazioaren analisi marxista klasikoen gaia, postfordismoarentzat eta berariazko analisi feministentzako errebisio gisa: “Bada kezka bat, hau da, garapen bidean dauden herrialdeek lanaren banaketa internazionalaren maila apal berak beteko ote dituzten informazio teknologien barruan, beste sektore konbentzionalagoetan egin zuten bezala.”⁹

⁷ Raymond Williams, *Marxism and Literature* (Oxford: Oxford Univ. Press, 1977), 122-126.

⁸ “Beyond the Vision,” *Economic and Political Weekly*, 34, 46-47 (1999 azaroa 20-26), 3247-3248.

⁹ “Beyond the Vision,” 3247. Aipatzen den hurrengo pasarte orrialde berean dago.

Ni ez naiz marxista oro postestrukturalista bihurtzeko kausaren zale. Oraingo honetan, errepikatze-hausturaren derridar oroigarri batzuk aipatuko ditut, bere lanean barreiatuak, *The Post Card* argitalpenean behintzat, arrazoi jakin batengatik¹⁰. Inteligentzia “artifizial” baten argudioek orogarri hauek behar izaten dituzte interdizio bat jaurti ahal izateko, inteligentzia “naturala”, zentzu hertsia goan, “artifiziala” ere badela gogora dezagun, *modu desberdinean*. Erromatar zuzenbidean, “interdikzioa” bi liskarkidek eztabaida bat amaitzeko modua zen. Hitz egokia da baten alde jarri ordez estrategikoki garrantzizkoa dena erabiltzen duen praktika izendatzeko.

Hauek dira, beraz, derridar oroigarriak, nire modura txegosiak: Lehena, telekomunikazio egiturak jadanik presente daude hondar-elementu gisa kultur prozesuan, komunikazio oro, egituraren aldetik, telekomunikazioa baita, motela, hala ere. Bigarrena, inork onartzen badu psikearen lanak “nia” sortzen duela, gai izan beharko luke ulertzeko lan hori ere silizioaren txiparen potentzial makinikoaren adierazpen gero eta korapilatsuagoek deskriba dezaketela, gero eta “komunikazio makina” berriagoak sortuz, eskuraezinak giza adimenaren jardunbidearentzat, eta lan metapsikologiko horrek “natural” eta “artifizial”-aren arteko bereizketa lausotzen duela. Hirugarrena, interdizioa abian jartzen bada, lagun lezake ulertzen ez dela batere gomendagarria bitartekorik gabeko ziberalfabetizazio promes limurtzaileak onartzea, garapen bidean dauden herrialdeetako hezkuntza orokorraren bidezidor gisa. Horretan sakontzeak orain gehiegi aldenduko gintuzke megahiritik. Jadanik begikotasun postestrukturalistak dituzten guztientzat, utzidazue eransten Derridaren lanak Sassenen lan bikaina errebisa eta indar dezakeela, aldarrikatzen duenean bat-bateko igarokortasun berri bat Interneten oinarritutako politikentzat, edo “presentzia” kategoria lehenago “ikusezin” zen erresistentziaren ikusgaitasunarentzat.¹¹

*Economic and Political Weekly*ren editorialak —Indiako ezker liberala dezente ordezkaten duena— ez du kontuan hartzen Bangaloreren hiri garapena, Indiako bost megahiritetako bat, gobernu zentralak finantzatu duela zati handi batean. Ondorioz, iruzkintzen duenean “gobernu estatalek eta hiri garapenerako erakundeak diru mordo inbertitzen ari direla azpiegituran laguntza eskaintzeko —parke infoteknikoak hi-tech komunikazio sareekin eta kolonia erresidentzial komunikatuekin—, “auzi sozial eta ongizate gai orokorrak behar adinako seriositasunez hartzen ez direla” baino gertakari askoz orokorragoa ahazten ari dira. Gertakari hori globalizazioa da. Kapitalismo elektronikoa globalak estatu auziak

¹⁰ Jaques Derrida, *The Post Card: From Socrates to Freud and Beyond*, itz. Alan Bass (Chicago: Univ. of Chicago Press, 1987).

¹¹ Sassen, “The Global City: Destabilizing Borders/Producing New Subjects,” Princeton-go Unibertsitatean emandako hitzaldia, Garai Transnazioaletako Literatura Konparatiboari buruzko kongresu batean, osteguna, 2000ko martxoaren 23a.

kudeatzeko esku hartzen du eta azpiegitura eraikitzen laguntzen du bere funtzionamendua optimoa izan dadin, eta horretarako besterik ez. Hemen, arloak landa guneko irakaslea delakoa barne hartzen du. Ni ez naiz aditua gai horietan, hasieran esan dudana bezala. Hala ere, nire “eskarmentua” eskaintzen dut, Sassen eta Vanda Shiva bezalako adituen idatziek nik esaten dudana baieztatuko dutelakoan.¹² Arrazoibidea, beste tokiren batean egin dudana bezala, ondokoa da, gutxi gorabehera:

Eurozentrikoak ez diren mugimendu sozial berriak, nekazaritza ekologikoaren alde lan egiten dutenak biopirateriaren aurka, emakumeen eta azpiegituretatik babestutako familia plangintzaren alde *dumping* farmazeutikoaren aurka eta biztanleriaren kontrolaren aurka —bi fronte aipatzegatik, besterik gabe— landa gunekoak eta lokalak dira soilik “glokal” klitxe berritik haratago joan ezin duen hondar-aurkatasun bitar batengatik. Mugimendu horiek aurka egiten diote zuzenean globalari, eta globalaren eta lokalaren arteko interdikzioa sortzen dute. Mundu sistemen teorikoek, Immanuel Wallerstein kasu, mugimendu horien potentzial askatzailea kokatzen dutenean, haientzat xede sistemiko bat taxutzen dute oraindik ere, uste baitute haien helburua alderdira edo estatuko boterera iristea dela. Izan ere, mugimenduek interdikzio bat egiten dute estatu errepresiboaren eta sarraskituaren, eta sarritan nazioarteko gizarte zibil delakoaren agenda esplotatzailearen artean. Xede sistemiko bat kontuan hartzea mugimendu hauek estatuak globalizazioan izaten duen ahultzetik sortzen direla ahaztea da. Kritika zentzurik ezarekin nazioarteko gizarte zibilean sinestea inter-nazionalitatearen aldarrikapenak estatuaren ahultasuna bultzatzen duela ahaztea da eta, ondorioz, konpentsazio konstituzionalaren ahultasuna talde erresistenteen aldetik, agentzia transnazionalak nazio-estatuaren artean diskriminatzen dutenean geopolitikaren eta munduaren finantzializatzearen koordenatuetan duten beren kokapen aldakorragatik. Berriro ere, Zazpien Taldeak —globalizatuak— globalizazioaren alde lan egin dezakete 77ko taldearekin negoziatuz (“garapen bidean” dagoen muturra, sintomatikoki ezagutezina mendebaldeko irakurle askorentzat), nazio-estatu binomio desorekatu baten oinarrian. “Nazionalismoak” oinarrizko talde erresistenteentzat duen tokia, katakresi erresistente prekario bat bailitzan, ez da oraindik teorizatu. “Landa gune” postkoloniala, sarri askotan nazioa zentzu kolonialean eta postkolonialean pentsatzeko ikaskuntzatik banandua, bere jokalekua da. Bigarren mailako Azterlanen hasierako lanek erakutsi zuten bezala, hau neurri batean gertatu zen, Asiako eta Afrikako zati handi batean, nekazaria ez zelako integratu bere burua “nazio” baten zati gisa hartzeko Askapen Nazionala gertatu zenean, nazioan pentsatzea erresistentziarentzat aginduzkoa bihurtu

¹² Vandana Shiva, *Stolen Harvest: the Hijacking of the Global Food Supply* (Cambridge, Mass.: South End, 2000).

zenean.¹³ Borroka, Leninen esamolde ospetsua aipatzeagatik, “burgesia progresistaren” eremua izan zen. Beraz, landa gunearen birtualizazioaren konpentsaziorako globalizazioan ahuldutako estatuaren izenean aldarrikatzen den nazionalismoa lehen manifestaldi anti-kolonialetatik bereiz daiteke, gaur egun, sarritan, nazionalismoa erlijiosoaren justifikaziora daramatenak. Guztiz agerikoa den zerbait da, eragiketen jokaleku batean gertatuko balitz bezala, gerra globalaren metafora bat maileguz hartuz. Teoriaren eginkizuna ere bada arrazionalki agerikoa egitea esperientziaren autoritatea deritzonak ezkuta lezakeena. Globaltasun postestatal urbanista bati buruz hitz egitea eginkizun horretaz ahaztea da.

Hona hemen jokalekua: hegoaldeko nazio-estatu askotatik zabaltzen diren lausoki erlazionaturik dauden mugimendu sozialen egungo *sareek* nazionalismoa saihesten dute. Askapen *nazionalerako* mugimendu burges handiek nekazari gaixoa bertan behera utzi zuten. Agentzia transnazionalentzat estatua oraindik ere bereiz daitekeen bermatzailea da, landa guneko datu baseak, patenteak eta suntsipen genetikoa birtualaren eta errearen arteko bitartekariak diren bitartean. Hala, “nazio” diskurtsoak berriz ere azaleratu behar du orain, une arriskutsu moduan betiere interdizkio hauek sendotzean. “Nazioa” ezabapen prozesuan dago (zirriborratua baina ikusgai) landa gunea eta hiri gunea interdizkioan jartzen badira. Izan ere, erlijioa ez bezala, nazio diskurtsoa erregistro honetan ezin da giza eskubideen izenean egin daitekeen esku hartze militar baten arrazoi izan daitekeen gatazka motarantz eramanez, mugimendu horien helburua globala baita, eta beren “nazio” pentsamendua, izatez, zaharragoak diren nortasun aldarrikapenen kontraesanak izan baitaitezke. Mugimendu horiek kultur aldean espazio batean barruan daude, baina kulturalismo metropolitarretik bananduak beren klase aliantzak direla eta. Estatu Batuek duten helburu posizio nabarmen eta garaileak, “kultur eskubideen” azken baliabide gisa, ez dio erresistentziaren kateatze hori ikusgai egiteko proiektuari batere laguntzen, eta, berez, bere esparrua definitzen laguntzen dute, oinarria estatuan edo kultur giza eskubideen murriztapenean duten “kasuak” bailiran besterik gabe. Irakurketa arduratsuagoa merezi dute: hegoaldeko sektore egokietan —eta Asiako hegoaldea horietako bat da— inperatiboak zabaldu beharko liritekeela landa gunea-globala barne hartzeko, nazionala-urbanoa soilik hartu gabe determinatzaile gisa. Megahiriaren espazio errearentzat borondate orokorra sortzea komeni baitzaio birtualari, ez bakarrik dibertsitatearen suntsipenagatik sendotua, baizik eta baita atzerriko kapitala nekazaritza arloan sartu izanagatik ere, eta ondorioz, errazagoa izanik atzerriko enpresentzat lurak erostea.

Zer itxura du erresistentziak hemen? Nire bisitaren urtean Bangaloreko megahiriaren proiektuan barne hartutako elementuen artean nazioarteko aireportu

¹³ Ranajit Guha, *Subaltern Studies* (Delhi: Oxford Univ. Press, 1982) 1-7 lib.

bat zegoen. Urtarrilaren 13an kasuaren epaiketa egin zuten eta Babu Mathew, zuzenbide irakaslea eta sindikalista, proiektu hau ustiatzeko lurren erosketa prozesua gelditu egingo zela segurtatu zidan, aldeko epai bati esker seguruenez. (Azkenean aireportua ez zen eraiki. “Modernizatu” egin zuten jadanik zegoena). Mathew profesorea, ordea, kopetilun ikusi nuen. Zergatik?, galdetu nuen nire kolkorako.

Haren erantzunak memoria kolektiboaren idealizazio abangoardistaren aurka ohartarazi beharko gintuzke. Langileak eta antolatzaileak, jakina, pozarren zeuden garaipen legalaren aurrean. Baina, kontua da lurjabe txikiek amore eman zutela erabat Garapenerako Finantza Erakundeak eskaini zizkieten megaprezioen aurrean. Beraz, aireportuaren eraikuntza gelditu izana liskar bat besterik ez zen izan. Egiazko gudua irabazita zegoen jadanik. Kapital pribatuaren koordinatzailea den Munduko Bankuaren aldeko borondatezko laguntza-oinarri bat lortu zuten. Jendaurrean Munduko Bankuari eta beste hainbat agentzia transnazionalari aurka egin dieten gutako edonork badaki nola isilarazten gaituzten: “Bangaloreko herritar gaixoei nahi badute, nor zarete zuek kontrakoa esateko?” Horrela eraikitzen da megahiri birtualerako agindupeko borondate orokorra.

Zentzu hertsienean, “landa gunea” lokalaren eta globalaren interdizkioa da hiriaren espazioan. Kapital elektronikoaren jokoak beren banaketa bitarra lausotzen du. “Pertsonen aliantza” global guztiek dakiten bezala, eta jadanik arrazoitu dudana bezala, biopirateria, hazien patenteak, ingeniariak, genetikoa eta *dumping* farmazeutikoa, ongari kimikoetatik pasatuta (zerrenda amaiezina da) landa gunea datu base horren emankorra bihurtu dute gaur egun, ezen globalaren fronte zuzena baita termino birtualetan. Jarduera esplotatzaile hauek elikatzen dituzten datuak dira eta beraz, etengabe kontrolatu eta sortu behar dira. Megahiriaren ekimena, bere era guzietan, interdizkioa altxatzen saiatzen da, urbanoari globaltasunerako “behar bezalako” sarbidea eman nahi dio elektronikaren bitartez, eta “landa gunea” metakonstitutibo bat bihurtu nahi du “urbano”-tik kanpo. Horra Babu Mathewen goibeltasunaren arrazoia.

Bangaloren, tokiko ikuspegi urbanoa —ofiziala nahiz erresistentea— globaletik urruntzen dela ematen du. Megahiri proiektuaren udal ikuspegia sektoretan zatituta dago. Udal Garapenaren plangintzaren arduradunek lurrak eta planak erabiltzen dituzte; agintari metropolitarrak azpiegitura planak. Nazioarteko aireportuarentzat markatutako lurrek ez omen zuten urik. Eraiki ditzagun ubideak Holandan bezala, —esan zuen gobernuak goi ordezkari batek—, nahiz eta hura ezinezkoa zela onartu. Baina —jarraitu zuen—, errazagoa izanago zatekeen eraikitzea lurraren erdia gobernuaren jabetza zelako. Lur haiek baso erreserba baten barruan zeuden, eta arazoa zer izango eta, ura! Eta horrela behin eta berriz. Juizio sektorializatu hauek ez dute ia zerikusirik duela hainbat hamarkada megaformaz eta megaegituraz izandako eztabaida akademikoekin. Epai sektorialak

aurrekontu esleipenen mende daude. Gobernu Zentralak bost megahiri guztiz heterogeneo hauetara —Bangalore, Bonbai, Kalkuta, Hyderabad, Madras— igorritako irizpide uniformeetan egiten zen eskakizun komun bakarra zen inbertsioaren ehuneko berrogeita hamarra megahiri birutualaren kultura sezesionistaren alde lan egiten duten garapenerako finantza erakundeek egindako enkante globalen bitartez koordinatu behar zela.

Indian megahiriaz dagoen ikuspegia Singapurreko hiri-estatuarena da. Eredu horri jarraituz, lurraren espazioa nahiz eraikin publikoen altuera ratioa aldatu dira arestian, eta plan horiek gero eta gehiago barneratzen dira auzune txiroetan. “Txabolagintza suntsitzea” edo “udal berriak” megahirien proiektuak dira, bai Bangaloren bai Kalkutan. Hong Kongeko kasua ere eztabaidatu zen, baita maila apal samarra zuten gobernuko funtzionarioen artean ere, nazio-estatu batean berriro txertatzeko arazoari aurka egiten dion hiri-estatu koloniala den aldetik. Baina Indiako “megahirien” singapurizazioaren alderantzizko arazoa ez zen sekula eztabaidatu. Hiria testu historiko baten jalkitze gisa bakarrik azter dezaket, une geografiko baten antzera “India” edo “Malaysia” bezala espazialki definitutako unitate handiagoetan. Ikuspegi horretatik, “Singapur” aipatzea “Bangalore”-ren testuinguruaren barruan, Derridak esango lukeen bezala, zauriak odolustea litzateke.¹⁴

Bisita bat egin nuen arkitekto erresistenteen eztabaidagune publiko batera. Singapurreko diskurtsoaren alternatibak “kulturala” ematen zuen era berezian. Zein motatako kultur formak erabili beharko lituzkete indiar arkitektoek eredu gisa? Nik beste nonbait iradoki dut “kultura” hitzaren erabilera, borroka kulturantz erradikal batean, Foucaultek “botere” hitzaz egiten zuen erabilerarekin konpara daitekeela: “egoera estrategiko korapilatsu bat izendatzeko gizarte jakin batean”.¹⁵ Globalizazioari egiten zaion erresistentzia erradikalak “kultura” hitza antzeko moduan erabiltzen du, 180ko graduko bira batekin ordea. “Kultura” arrazoitik haratago dauden arrazoiak iradokitzen ditu. Arrazoibide hori migrazioan erabiltzen bada gizarte zibil batean sartzeko nahia asetzeko, zeinaren pertenezia zorionekoa anglosupremazistek edo beren klonek aldarrikatzen baitute, postkolonialtasunean egoera ezin hobean dagoen modernitate baterako sarbidea eztabaidatzeko erabiltzen da, mendebaldarra “moderno” baita eta kultura “tradizionala”.

Indiar gobernua, noski, erabat “moderno” da. Charles Correaren Hirigintza Batzordeko Txosten kulturalista isilarazi zuen 1987ko Indiako Plangintza Batzordeak Texas Instruments Bangaloren ezarri zen urtean.

¹⁴ Ebakien, zaurien eta aipamenen taularatzea hemen dago: Jaques Derrida, *Glas*, itz. John P. Leavey, Jr. et al (Lincoln: Univ. of Nebraska Press, 1986), 207-210.

¹⁵ Spivak, *A Critique of Postcolonial Reason: Toward a History of the Vanishing Present* (Cambridge: Harvard Univ. Press, 1999), 353

Prem Chandavarkar, nire adiskidea, arkitekto erresistentea, badaki ez dela horrela, baina Bangaloreko arrakasta handiko arkitektura enpresa baten kidea den aldetik, egoera ezin hobeko modernitate batentzako kultur ereduak auziak jazartzen du.. Bakean teorizatzen uzten zaionean, arkitekturaren teoria bat eraikitzen du praktika espazial bat balitz bezala, historiak sortutako esanahia zurgatzen duena egileak egin nahi izan duenaren orde, asmoaren eta ondorioaren arteko banaketaren ikuspegi kritikoa. Eta, bulegotik irteten denean erresistentzian lan egiteko, Indiako konstituzioaren hirurogeita hamalauaren zuzenketan parte hartzen du, Nagar-Palika Legea, eta barrutian kokatzen du unitate urbano txikiena, tokiko autokudeaketaren unitate desiratua.

Hala ere, egoera ezin hobeko modernitateak aldentzen gaituzten kultur ereduak buruzko auzian bezala, hiri barrutietan oinarritzen den erresistentzia ez da hiri oinarriak sortzera iristen. Mathew, zuzenbide profesorea eta sindikalista, konturatzen da, une honetan, sortu diren etxebizitza, garraio, osasun eta hezkuntza arazoak, nahiz eta abangoardista erradikalek ulertu, langileek ez zituztela beharrezkotzat jo. Gutxiegi izan baitzuten denbora luzeegian. Lurra, soilik lurra jotzen zen arazotzat, eta transnazionalak konpontzen ari ziren arazoa ordurako. Berriz ere, auzia borondate nagusi bat eraikitzea zen. Agenda bat hondar-bitar batean, hegoaldeko “landa gune” horrekin batera, hegoalde “urbano”-aren galera iraunkorra da, eta bitartekaria da megahiri birtuala egiazko espazio batera eramateko, makinak eta metodo modernoak erabiltzeari aurka egiten dion norbait ematen duen futurismo baterantz. Mathew profesorearen esamoldea globalizazioa da “estrategiak zuzendua krisiak zuzendu orde.”

Eurozentrikoak ez diren Mugimendu Sozial Berriak zuzentzaile ikusezin bat izan daitezke lankidetzazko nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakunde (GKO) Nazioarteko Gizarte Zibilarentzat. Helburua ez da barrutia hiri autogarapenerako unitate txikiarentzat ezartzea, baizik eta lokalarekiko ikuspegia zabaltzea, globalaren eten gisa. GKO onak —pertsonek aliantzak— laguntza eteten denean aurrera egiteko behar adinako indarra duten haiek dira, nahiz eta modu mugatuagoan izan. Erresistentzia alderdi politikoetatik at antolatzen da argi eta garbi. Gehiegi laburtu dudak guztiaren emaitza gisa, arkitekto erradikalek, baita udalerrak ere, hobe lukete landa gunearen gaia berriro pentsatzea, hiria hiri moduan gorde nahi badute behintzat. Landa gunea ez dago jadanik zuzentzen eta soroz egina. Informaziorako bidean dago.

Inperatiboak honela aldatzen badira, espero dugu eginkizuna (arkitektoak bat duen neurrian) kultura eraikitzea bada (ahal den neurrian, edo beharrezkoa eta ezinezkoa) “arau zaharrek” zuzenduko dutela bere ehundurari dagokionez, jakina, epaitu egingo direla jardunbideari ekiterakoan, kontularitza ororekin egiten den bezala, kalkulagarriak izan behar baitute.. “Ehundurak” esan nahi du hemen lana nola egiten den azaltzen duen partehartze mikrologiko zehatza, lana nola egin

beharko litzatekeen dioen plangintza makrologiko estrukturala baino gehiago. Etorkizunak duen zalantzagarritasuna onartzeak kalkulu hutseko totalitarismoaren aurkako zaintza egiten du. Gutxienez ez dugu AEBetako nazionalismoa berez globala (onbera) denarekin nahasiko. AEBetan egindako klaserik gabeko justizia ekologikoaren ikuspegia desegokia da, ezin erremediatuzko eran, landa gunearen espektralizazioari aurre egiteko.

Beste tokiren batean idatzi dut birtualaren eta megahiri errearen arteko bitartekari izango den borondate orokor baten sorkuntzaren kontra heztea ezinezko proiektua dela adierazteko, interdizio globalizatzailearen deuseztapenaren kontra.¹⁶ Bere premia iradoki dut Derridaren bitartez, gorago. Hemen gogorarazi nahi dizuet Bangalorera egin nuen bidaia Hong Kongeko kongresu baterako materiala biltzeko helburuarekin egin nuela, eta, aldi berean, proiektu honentzako lan trinko baten aldeko hainbat bidaiatako bat subentzionatzen ari zela, inondik inora antzik ez zuela “literatur proiektuekin”. Bangalorera egindako bidaia, beraz, bi aldiz instrumentala izan zen, eta puntu jakin horretaraino, konstitutibo urrun eta idiosinkrasikoa, India aborigenaren ordezkagarria ez den bazter horretatik kanpo, non Kalkula erabat luxuzko metropolia ematen duen. Baina sarrera modismo batean atziturik gelditzen da, eta ez dago bermerik. Bazter hori ezin da saiakera honen esparruan sartu. Horrela, globalizazioaren zaindaria den aldetik, megahiriari nik egin diezaiokedan kritika oro mugatua da bere irispideari dagokionez.

Ni New Yorken bizi naiz; bertan, politikariek eta profesionalak ez diren beste batzuek megahiriaz egiten duten autoerrepresentazioa megahiri gisa bere biztanleen askotarikotasunaren eta finantza arloan zein kultur jokalekuan duten nagusitasunaren mende dago. Nire ikuspegitik, eskubide zibil batzuk lortzeko gizarte zibilean txertatu nahi duten etorkinez betetako hiri bat, arrazoi askorengatik, ez da hain zuzen hiri “global” bat; mundua metropolira ekartzen du eta “amerikarra dena” birdefinitzen du. Baina azpizatiketaren neurria oinarrizko plano batean New Yorkeko etxadi bateko eraikinen altuera baino askoz aberatsagoa da, eta teknikoki, New Yorken deskribapen zaharra, oraindik ere bizirik dago, auzo multzo bat, alegia. Izan ere, badago abian dagoen hiriaren birtualizazio bat, hiriburu elektronikoaren eranskin bat bailitzan berreraikitze ahalegina: horren lekuko da duela gutxi egin den Times Squareren birmoldaketa. Newyorktarrek, ordea, borrokan dihardute definizio zaharra mantentzearen, bere klase eraketa aldatzen badu ere. Borroka hori, bere adarkadura guztietan, Rosalyn Deutsche-ren *Evictions* lanean teorizatzen da.¹⁷

Nahiz eta egunkariaren artikulu bereziak artistak aurkeztu etxerik gabekoen eta goi burgesiaren artean harrapatu baleude bezala, artista bera, gure Empire Estateren

¹⁶ Spivak, “Planet-Think.”

¹⁷ Rosalyn Deutsche, *Evictions: Art and Spatial Politics* (Cambridge: MIT Press, 1996).

herritarrak Brooklyn eskaintzen du Ezkerreko Ertz berria balitz bezala, Arte Modernoaren Museoa P.S.1 bezala, Whitney Museumaren aurrean garaile, Manhattanen erdian.¹⁸ Gutxiengo zaharrekin nahasten diren emigrante ekonomiko eurozentrikoak New Yorkeko kultura dira, berriz ere idatzia. Utz diezaiozun megahiriaren indarrentzat gatazka leku izaten. Zentzu horretan, retro samarra izaten jarraitzen dudala uste dut.

Goazen orain beste jokaleku batera eta beste antzezpen batera, nire bigarren hiritik lehenengora. Indiako gobernuak, estatu postkolonial modernoa delakoak, bost megahiri proiektu ditu. Silizioaren bi hiri berri barne hartzen ditu, Hyderabad eta Bangalore, baina baita hiru hiriburu kolonial eta presidentzial zahar ere: Bonbai, Kalkuta eta Madras. Palinpsesto horren gainean, bere ironia historiko berekiekin, “britainiar India”-ren ikuspegi zahar, sektorializatu eta burokratikoaren talka berezia dago; “britainiar India” pixkana desegiten ari da, “megahiriaren proiektua” delakoa eta globalizazioaren indarrak landuz.

Ni kalkutarra naiz. Eta egia da badirela klase sezesionistagaiaren (hori bada hitz egokia) kideak Kalkutaren espazio errealean ere bizi direnak. Kalkuta, ordea, nazio-estatuaren berezitasunak oraindik ere megahiriaren diskurtsoaren bultzada unibertsalizatzailearentzat beharrezkoak direla adierazten duen adibidea da. Hori askotan gertatzen da tokiko informatzaileak ez daudelako prest edo ez direlako gai halako berezitasunak kontuan hartzeko, eta zaharrak direlakoan baztertzen dituztela. Eta jakina, *Calcuta 300* lanari Silizioaren Haraneko kazetaritzak duen azaleko xarma eta hitzjariora falta zaizkio.¹⁹

Hona hemen nire solasaldi-esperientziaren ondorioa, behin nire hirira itzuli ondoren. Kalkutako garapen metropolitarrerako agintaritzaren ordezkari bat, hirurogeiko hamarkadatik Ford Fundazioak Kalkuta zibilizatzeko izan zituen ahalegin zapuztuez ondo informatua zegoena, bera izan zen nire kanpolan amateur osoan hau galdetu zidan pertsona bakarra: zein da megahiriaren definizio akademikoa? Hong Kongetik deitu nion eta epaimahaia oraindik eztabaidatzen ari zela esan nion.

Kalkuta Mendebaldeko Bengalako estatuan dago eta hogeita hamar urtez ezkerreko koalizio batez osatutako gobernuak agindu du bertan. Ez da gobernu zentralak gehien lagundu duen estatuetako bat izan. Megahiriaren auzia, gobernu

¹⁸ Bernard Stamler, “Artists Stake Out A New Patch of Turf”, *New York Times*, 2000ko aprilaren 9a, The City, 4. or. Razorfish, Interneteko enpresa batek, Isa Cattoren estudioa bultzatu zuen Garment Barrutira. Goi burgesiak artistak bultzatu zituzte garai zaharretako industrialekin batera bizitzera, eta hauek zenbaitetan klaseen esplotazioa egiten dute, ohitura zaharrei jarraiki. Erresistentziaren iritzi hau Toland Grinnell eskultoreak eskaini zuen telefonoz egindako elkarrizketa batean, piezan aurkeztutako artistetako bat.

¹⁹ *Calcuta 300: Plan for Metropolitan Development 1990-2015* (Calcutta: CMDA, 1990). Ez dut plangintzari buruzko testuak epaitzeko kualifikaziorik. Baina badirudi agiri guztia —Indiako nazio-estatutik etorri ordez Mendebaldeko Bengalako estatutik datorrena— egiturazko proiektuei buruzkoa dela, espazio errelaren praktika batekin eta lurraren erabilerarekin batera, oso zerikusi txikia dutenak hiriarekin, birtualizazioaren eranskinetarako tresna gisa.

zentralaren finantzatzearekin duen erlazio bereziarekin, ez da hemen gehiegi defenditzen. Denen esanetan, estatuko gobernuak ondo funtzionatu du bost kidez osatutako landa guneko autogobernu unitateekin. (India aborigeneko oso ordezkagarria ez den bazter batera erretiratuko banintz, non Kalkultak luxuzko metropolia ematen duen, arrakasta hori ilundu egingo litzateke aurreiritziak direla eta, baina hori mikrologikoegia da). Hiri honek antzinako espazio erreala du eta erlazioa herrialdearekin. Mendebaldeko Bengalako estatua, harrigarria bada ere, ez da espektralizazio globalarenzat harrapakina, landa guneko Bangladesh den moduan.²⁰ Monokulturak eta ongariak “iraultza berdea”-ren aurreko uholde batean iritsi ziren, baina ez horren modu menderatzailean, estatuaren ezkerreko egitura ekonomikoari esker. Erresistentzia ez dago horren antolatuta eta globalizazioaren eraginak landa gunean baino sakonago bizi dira. New Yorkeko hirian ez dago Mendebaldeko Bengalako langileriarik.²¹

Nik, oraindik ere, kontsolamendu ezkutu bat sentitzen dut New Yorkek megahiriaren eraginari aurka egiten diola eta Kalkutak ere eutsi egiten diola ikustean. Garaiekin bat egiteko zailtasunak dituen pertsona baten azken kontsolamendua da.

²⁰ Oso argudio orkorra da, Indiako eta “garapen” bidean dauden herrialdeetako beste tokietako landa guneko “marxistek” ezagutzen dutena, eta baliteke Raymond Williamsi buruz hitz egiten ez entzutea. *The Country and the City* (New York: Oxford Univ. Press, 1973).

²¹ Ez naiz iradokitzen ari Kalkutan bizitzea “boterea ematen” duenik, edo Kalkutako landa guneko eta hiriko txiroak “zorionsuak direnik”. Halako gaizkiulertua bereziki arrunta omen da Britainia Handian. (Gary Day, “Muffling the Voice of the Other,” *Times Higher Education Supplement* (1999ko abuztuaren 6a), 22; Chetan Bhatt, “Primordial Being: Enlightenment, Schopenhauer and the Indian Subject of Postcolonial Theory,” *Radical Philosophy* 100 (2000 martxoa-apirila): Shyamal Bagcheeren nahitaezko hitzak aipatzen ditut: “Spivakek irakurketa bat egiten du indiar ikuspegitik –eskura dauden indiar ikuspegi askotako bat, azken batean – eta alfabetismo transnazioal baten aukereiz mintzatzen da, ez postnazional batez. (Gogora dezakegu orain, Kanadako konfederazioaren ehun urteurrenean ere, Northrop Fryek mundu postnazionaleko lehen gizartea deitu ziola honi; eta gure garaitik hurbilago, Frank Daveyk zoritxarreko halabeharraz sakondu du arestiko kanadiar fizkioaz egin duen azterketan.) Spivakek globalizazioaz egiten duen kritika munduko nazioak desagertuko ote diren edozein kezkatatik at iristen da, Mendebaldetik kanpo behintzat, eta hain zuzen ere, estatuen artean harreman ez koertzitibo berriak sor litezkeela uste duenez gero, bere transnazionalitate kontzeptua proposatzen du. Moldatu egiten da nire ustez Mendebaldea/Lehen Mundu/Amerika Bestea bezala ikusteko, pixkana homogeneoagoa den Mendebalde batean bizi garen gehienontzat aukera urruna, malenkonia inperialista leun batekin alternatiboki proiektatzen dugun halabeharra gainerako munduaren gainean. Postnazionalismoa, dio Spivakek, “iparraldearen *chic* erradikala” da (Shyamal Bagchee, nire *A Critique of Postcolonial Reason*en aipamena, in *Literary Research/Recherche littéraire* 16.32 (Fall-Winter/automne-hiver 1999): 337).

Irudiak:

The Disney Store
Frederick Douglass Boulevard
eta 125 kalea, New York.
Argazkia: Alice Attie

14-15 orrialdeak
Andreas Gursky,
Hong Kong, Airport, 1994
C-print 49^{1/4} x 61".
Matthew Marks Galeriaren adeitasunez,
New York.